61DA (2026)

Indarkeria Matxistaren aurkako protokoloa

1-Zer hartzen den indarkeria matxistatzat

Indarkeria matxista sinesmen patriarkal, klasista eta heterosexualetan oinarritutako jokabide eta jarreren bidez adierazten da.

Emakumeen, neskatoen eta genero-identitate edota sexualitate ez-normatiboa duten pertsonen duintasuna, estimua eta osotasun fisikoa eta mentala sistematikoki kaltetzen laguntzen duten ekintza guztiak dira indarkeria matxista.

Gorputz ez normatiboekiko fobietan adierazten den indarkeria matxistak hainbat forma har ditzake: transfobia, lesbofobia, homofobia… LGBT fobiak aipatzen ditugunean horri egiten diogu erreferentzia

Indarkeria fisikoa eta sinbolikoa, biak hartzen ditu kontuan protokolo honek

2-Ezarpen eremua

Protokolo hau Durangoko Azokaren testuinguruan aplikatuko da (Landakogunean zein guneetan), eta egitarauaren une ezberdinetan (prestaketarako muntaia eta desmuntaia tarteak ere bai) parte hartzen duten pertsonei eragingo die, beraien rola edozein izanik ere: bisitariak zein langileak (egileak, antolakuntzakoak, partaideak…), guztiak babesten ditu protokoloak eta guztiek aktibatu dezakete.

3-Prebentzioa

- **Koordinazio mahaikideek eta antolakuntzako langile guztiek** protokoloa ezagutzea.
- **Protokoloaren berri ematea:** bisitarientzat seinalitika (kartelak), megafoniako kuñak eta webgunea, eta partaideei (sortzaileei eta bestelako langileei) txostena helarazi.
- **Gune moreak:** info puntua eta puntu morea soinean daramaten langileak.

4-Esku-hartzea

4.1-Esku-hartzearen irizpideak

- **Azkartasunez:** Indarkeria egoera bat bizi izan duen pertsona batek, laguntza eske jotzen duenean, denbora luzez zain egotea ekidin behar da. Erabakiak pentsatu eta lasai hartzeak ez du esan nahi azkartasun printzipioa betetzen ez denik.
- **Konfidentzialtasunez**. Erasotuaren identitatea eta kasuaren inguruko xehetasunak gorde, zurrumurruak eta txutxu-mutxuak ekidinez. Beharrezkoa ez den informazioa ez da partekatuko eta erasoa jasan duen pertsonarekin kontrastatuko da zer eta zer puntura arte partekatu daitekeen.
- **Proportzionaltasuna**. Kasuan kasu erabakiko da zer den gertaerarekiko proportzionala eta egokia; ez da erantzun edota erabaki estandarrik hartuko.
- **Erreparazioa helburu**. Behin erasoa eginda kaltea eginda dago eta hori ezin dugu ekidin, baina jasotako min edo kalte hori erreparatzeko gure esku dauden baliabideak aktibatuko ditugu.
- **Erasotuaren beharrak erdigunean**. Pertsona bakoitzak modu ezberdinean erreakzionatzen du egoera konkretu baten inguruan, eta erasoa jasan duen pertsonaren beharrak errespetatzea eta bere erritmoetara egokitzea izango da lehentasuna.

4.2-Esku-hartzeko prozeduraren urratsak eta arduradunak

Kasuan kasu jokatu egoera konkretu bakoitzaren arabera jokatuko da. Dena den, kasu guztietan erdigunean egongo dena erasoa jasan duen pertsonaren beharrak izango dira, kontatzen duena zalantzan jarri gabe.

Landakogunean eta Guneetan puntu moreak: Landakogunean info puntua eta ateetako langileak izango dira erreferentziak, eta guneetan ateetako langileak (puntu morea eramango dute soinean). Erasorik edo salaketarik egiten bada, protokolo arduradunarengana joko da.

Protokolo arduraduna

Protokoloarekin lotutako erabakiak hartzearen ardura **protokoloaren arduradunarena** izango da. Berak artatuko du biktima, eta erabakiko du nola jokatu kasu bakoitzean eta noiz deitu behar den Protokolo Batzordea salaketa ekintzaren baten inguruko edo beste gisa bateko erabakiak hartu ahal izateko.

Protokolo batzordea

Osaera: Protokolo Arduraduna, Azokako autobabes planeko arduradunak, Azokako komunikazio taldeko kide bat eta Gerediaga Elkarteko zuzendaritza batzordeko kide bat.